*Imanol Lasa Zeberio*

*Gipuzkoako Foru Aldundi Txit Garaiko Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuko foru diputatu eta Diputatuen Kontseiluko idazkaria.*

*Diputado foral del Departamento de Gobernanza y Comunicación con la Sociedad y secretario del Consejo de Gobierno Foral de la Excma. Diputación Foral de Gipuzkoa.*

**ZIURTATZEN DUT:**

**Foru aldundi honetako Diputatuen Kontseiluak, 2019ko martxoaren 12an egindako batzarraldian, ondoko erabakia hartu zuela:**

"Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2015-2019 aldirako Kudeaketa Plan Estrategikoak bere helburuen artean jasotzen du Gipuzkoaren gizarte baliabideen sare publikoaren eskaintza egokitzea gizarte beharren bilakaera kontuan hartuz eta horrek lurraldean oreka izatea lortzea. Horretarako, beste hainbat ekimenen artean, Errenteriako Olibet adineko mendeko pertsonentzako eguneko zentroa eraberritzeko beharra antzeman da.

Testuinguru horretan, behar horri erantzuna emateko xedez, 2017ko maiatzean Enrique Erro García arkitekto teknikariari proiektua idazteko enkargua egin zitzaion eta 2017ko abenduan entregatu zuen. Proiektu horrek Inbertsioko eta Gizarte Ekimeneko Ataleko Nerea Astibia Makatzaga arkitekto teknikoaren aldeko txostena dauka.

Jarduketa horrekin eskuragarri dagoen tokia egokituko da eta gaur egungo plaza kopurua 30etik 36ra igoko da.

Horregatik, orain bidezko da aipatutako proiektuan zehaztutako obrak egitea eta arautegian ezarritakoa betetzea.

Proiektuak bost hilabeteko exekuzio epea du, eta 467.205,10 euroko aurrekontua, gehi % 21eko BEZari dagozkion 98.113,07 euro; guztira aurrekontua 565.318,17 euro da eta Diputatuen Kontseiluak onartu behar du.

**CERTIFICO:**

**Que el Consejo de Gobierno Foral de esta Excma. Diputación Foral, en sesión de 12 de marzo de 2019, adoptó el siguiente acuerdo:**

"El Plan Estratégico de Gestión 2015-2019 de la Diputación Foral de Gipuzkoa recoge entre sus objetivos el adecuar la oferta de la red pública de recursos sociales de Gipuzkoa, dada la evolución de las necesidades sociales y lograr su equilibrio territorial. Entre otras iniciativas, se ha detectado la necesidad de reformar el centro de día para personas mayores dependientes Olibet de Errenteria.

En este contexto, con el objeto de dar respuesta a dicha necesidad, en mayo de 2017 se encargó la redacción del proyecto al arquitecto técnico Enrique Erro García, que fue entregado en diciembre de 2017. Dicho proyecto tiene el informe favorable de Nerea Astibia Makatzaga, arquitecta técnica de la Sección de Inversiones e Iniciativa Social.

Con esta actuación se adecuará el espacio disponible, aumentando las plazas actuales de 30 a 36 plazas.

Por ello, en la actualidad resulta necesario acometer las obras definidas en el proyecto nombrado y así cumplir la normativa vigente.

Dicho proyecto cuenta con un plazo de ejecución de cinco meses y un presupuesto de 467.205,10 €, más 98.113,07 € en concepto de 21% IVA; en total, 565.318,17 €, correspondiendo su aprobación al Consejo de Gobierno Foral.

Ondorioz, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuenak, 159-1a artikuluan dioenari jarraikiz, eta kontratuaren zenbatekoa ikusirik, prozedura ireki erraztuaren bidez esleituko da.

En consecuencia, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 159-1a) de la Ley 9/2017 de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público y a la vista de la cuantía del contrato, éste se adjudicará por procedimiento abierto simplificado.

Horregatik guztiarengatik, Diputatuen Kontseiluak, Gizarte Politikako Departamentuko foru diputatuak proposatuta eta eztabaidatu ondoren,

En virtud de todo lo expuesto, el Consejo de Gobierno Foral, previa deliberación y a propuesta de la diputada foral de Políticas Sociales

ERABAKITZEN DU

ACUERDA

**Lehenengo**.- Onartzea Errenteriako Martires de la libertad 9 zenbakian kokatzen den Olibet adineko mendeko pertsonentzako eguneko zentroa eraberritzeko obrei buruzko gauzatze proiektua, 467.205,10 euroko gehieneko aurrekontua duena gehi % 21eko BEZari dagozkion 98.113,07 euro; guztira, bostehun eta hirurogeita bost mila hirurehun eta hemezortzi euro eta hamazazpi zentimo 565.318,17 €). Obrak gauzatzeko bost (5) hilabeteko epea ematea onartu da.

**Primero.-** Aprobar el proyecto de ejecución de las obras de adecuación del centro de día para personas mayores dependientes Olibet, ubicado en Mártires de la libertad nº9 de Errenteria, con un presupuesto total máximo de 467.205,10 €, más 98.113,07 € en concepto de 21% IVA; en total, quinientos sesenta y cinco mil trescientos dieciocho euros con diecisiete céntimos (565.318,17 €), y un plazo de ejecución de cinco (5) meses.

**Bigarren.-** Kontratazio espedientea onartzea proiektu horren obrak egiteko, barne delarik baldintza administratibo berezien agiria; eta irekitzea prozedura ireki erraztatua kontratua esleitzeko, zeinen balio zenbatetsia 467.205,10 eurokoa den.

**Segundo.-** Aprobar el expediente de contratación para la ejecución de las obras del citado proyecto, que incluye el correspondiente pliego de cláusulas administrativas particulares; y disponer la apertura del procedimiento abierto simplificado para la adjudicación del contrato, cuyo valor estimado asciende a 467.205,10 €.

**Hirugarren**.- Baimentzea kontratazio horri dagokion gastua, bostehun eta hirurogeita bost mila hirurehun eta hemezortzi euro eta hamazazpi zentimo (565.318,17 €) barne hartzen dituena obra proiektua gauzatzeko exekuzioaren zenbateko osoa eta BEZari dagokiona, aurrekontuko partida honen kargura:

| Partida | Aurrekontua |
|---|---|
| 1.820.210.610.03.01.2019 ............ | 565.318,17 € |

**Tercero.-** Autorizar el gasto correspondiente a dicha contratación por un importe de quinientos sesenta y cinco mil trescientos dieciocho euros con diecisiete céntimos (565.318,17 €) que comprende el importe total de la ejecución del proyecto de obra y el IVA correspondiente, con cargo a la partida presupuestaria siguiente:

| Partida | Presupuesto |
|---|---|
| 1.820.210.610.03.01.2019 ............ | 565.318,17 € |

**Laugarren.-** Gizarte Politikako Departamentuko foru diputatuari ahalmena ematea, lizitazioko tramiteak egin ondoren, kontratua adjudikatzeko eta formalizatzeko, eta kontratua behar bezala gauzatzeko beharrezkoak diren egintza, erabaki eta ebazpenak hartzeko.

**Cuarto.-** Facultar a la diputada foral del Departamento de Políticas Sociales para decidir sobre la adjudicación y formalización del contrato, previos los trámites licitatorios oportunos, y para adoptar cuantos actos, decisiones y resoluciones sean necesarios para su correcta ejecución.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesatuek erabaki honen aurka zuzenean ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOA aurkez dezakete administrazioarekiko auzietako Donostiako epaitegietan, jakinarazpenaren biharamunetik hasita

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él RECURSO CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de DOS MESES a partir del

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA · DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

BI HILABETEKO epean.

Hala ere, aukera dute horren aurretik BERRAZTERTZEKO HAUTAZKO ERREKURTSOA aurkezteko Diputatuen Kontseiluari, HILABETEKO epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo presuntziozko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke."

**Eta horrela jasota gera dadin, ziurtagiri hau egiten dut Donostian, 2019ko martxoaren 20an.**

día siguiente al de su notificación.

No obstante, con carácter previo, podrán interponer RECURSO POTESTATIVO DE REPOSICIÓN ante el Consejo de Gobierno Foral, en el plazo de UN MES a partir del día siguiente al de su notificación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente."

**Y para que conste, extiendo la presente certificación en San Sebastián, a 20 de marzo de 2019.**

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA · DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA